



Iruñan, 2018ko ekainaren 29ean

2017-2018: IRAGARRITAKO SUSPENTSO BATEN KRONIKA

Prentsa ohar honen bitartez STEILAS sindikatuak 2017-2018 ikasturteko Hezkuntza Departamentuari egin diogun ebaluaketa jakinarazi nahi dugu.

Hezkuntza kalitatea hobetzeko ituna: Ekainera iritsi gara murrizketen iraulketa osoa bermatuko duen inolako akordiorik gabe eta lan harremanetako hornikuntza esparru argi bat gabe ere. Hau dena departamentutik justifikatu gabeko luzapen konstante baten ondorioz, haustura eta negoziaketa frustratu baten ostean. Gobernua negoziatzera behartu dion bakarra, egindako mobilizazioak izan dira, baina behin eta berriro ahalegindu dira hezkuntza publikoaren finantzazioa handitzeko konpromezua ez hartzeko estrategia mantentzen.

Zerrenden kudeaketa: Hezkuntza Departamentuak argitasun eta balentria eza agertu du elebidunak diren irakasleak pairatzen ari diren diskriminazio kronikoa (euskara-gaztelera) bukatzeko eta zerrendak kudeatzeko sistema egokia sortzeko. Izan ere, ez die erantzuten ez sistemak dituen beharrei ezta urteetan zehar irakasteko gaitasuna erakusten ari diren irakasleen finkapenari. STEILASek proposatu zuen zerrenda integratuak eta oposizioetatik bereziak egitea eta egokituz hartu zuten, baina haien proposamenean zerrendak espezialitateka sailkatzen zituzten eta oposizioei lotzen zituzten. Alabaina, azkenean Nafarroan izan den normatibarik okerrena inposatu dute, sindikatu guztiak kontra egonda ere. Egungo araudiko bi artikulua baliogabetzen duen sententzia izan da aitzakia ziztrin eta bakarra, baina sententzia horrek ez du inondik inora behartzen zerrendak eta oposizioak lotzera eta, are gutxiago, lehenetsuneko zerrendak birjartzera.

EPE: Prozesu nahasgarria berriro ere. Bi hilabete baino gehiago behar izan zituzten lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako gorputzen oposizioen deialdi bateratua zentzugabekeria galanta zela onartzeko eta konponbidea bilatzeko. Bigarren Hezkuntzako deialdia akatsez beteta eta gaizki zehaztua egon da. Epeak asko estutu dituzte, plaza kopurua azken unean handitu da... Guzti honek, parte hartu dutenen urduritasuna areagotu du. Eta aurrekoa gutxi balitz, aurkezpen ekitaldian programazio didaktikoaren baldintza formalen aurre ebaluazioa egin dute eta honen ondorioz oposiziotik kanpo eta zerrendetan egoteko aukerarik gabe utzi diete pertsona batzuei. Honek helegite eta arazo berriak ekar ditzake.

Plan eta proiektuak. Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorreko zerbitzu ezberdinak, proiektu eta plan ezberdinen sorreran aritu dira buru belarri: aniztasunaren trataerarako, SKOLAE hezkidetzakoa, irakasleen prestakuntza metodologia aktiboetan... ez dugu zalantzan jartzen interesgarriak direnik, baina baliabide mugatuekin irakasleentzat ahalegin gehigarri bat suposatzen du eta lan karga hau dagoeneko gehiegizkoa denez jendea gehiago erretzea ekar dezake.

Gehitu ahalko genuke aurrera ez egiteko frustrazioa hainbat arlotan (hala nola 0-3 zikloaren kudeaketa komunean, hizkuntzen trataera bateratuetako plan berriko inplementazioan, edo lan osasuneko jardura protokoloetan). Honi batu beharko litzaioke sindikatuekiko etengabeko gutxiespena, haien lana burutzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzeko orduan edota arlo ezberdinetako parte-hartzean (derrigorrezkoak diren alderdiak, baina sistematikoki bete ez direnak).

Hau guztia dela eta, Hezkuntza Publiko kudeaketan gobernuak merezi duen kalifikazioa gutxiegi biribila da. Datorren ikasturtean izango du gobernu honek gainditzeko azken aukera. Espero dugu irailean bertan lanean hastea, haien betebeharra lortzeko: akordio programatikoan adostutakoa ezartzea, legealdia bukatu baino lehen.

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

2017-2018: CRÓNICA DE UN SUSPENSO ANUNCIADO

El sindicato STEILAS mediante esta nota de prensa quiere dar a conocer la evaluación final que hemos realizado al Departamento de Educación en el curso 2017-18:

Pacto para la mejora de la calidad educativa: después de continuas e injustificadas dilaciones, rupturas y negociaciones frustradas llegamos a junio sin haber alcanzado ningún acuerdo para garantizar la reversión completa de los recortes y para dotarnos de un marco claro de relaciones laborales. Sólo las movilizaciones han obligado a sentarse al Gobierno a negociar, pero una y otra vez han seguido mareando la perdiz para no comprometerse a incrementar la financiación de la educación pública.

Gestión de listas: el Departamento de Educación ha demostrado una falta total de claridad de ideas y de valentía para dotarse de un sistema de gestión de listas que responda tanto a las necesidades del sistema como a la consolidación del personal que lleva años demostrando su capacidad docente y para acabar con la discriminación crónica que sufre el profesorado bilingüe en castellano y euskera. Pasaron de considerar adecuada la propuesta de STEILAS de listas integradas y desvinculadas de las oposiciones, a proponer listas por especialidades únicas ligadas a oposiciones para acabar finalmente imponiendo, con la oposición unánime de todos los sindicatos, la peor normativa que ha existido en Navarra, escudándose en una sentencia que anulaba dos artículos de la normativa actual pero que de ninguna manera obliga a unir oposiciones y listas y mucho menos a volver a las listas preferentes.

OPE: una vez más confusión en el proceso. Se tardó más de dos meses en admitir que la convocatoria simultánea de oposiciones en los cuerpos de primaria y secundaria era una demencialidad y buscar una solución. La convocatoria de secundaria ha estado plagada de inconcreciones y errores. Los plazos previos se han ajustado al límite, se ha aumentado el número de plazas en el último momento... Todo ello ha hecho que los nervios de quienes tienen que participar en el proceso hayan estado a flor de piel. Como guinda del pastel la evaluación previa de los requisitos formales de la programación didáctica en el acto de presentación de la misma ha dejado, de manera arbitraria, fuera de la oposición y de las posibilidades de contratación a algunas personas. Esto puede ser objeto de recursos y de nuevas complicaciones.

Planes y proyectos. Los distintos servicios de la Dirección General de Educación se han visto inmersos en una frenética actividad de elaboración de planes y proyectos: de atención a la diversidad, el SKOLAE de coeducación, de formación del profesorado en metodologías activas.... No ponemos en duda que sean interesantes, pero con recursos limitados exige un esfuerzo más a un profesorado cuya carga laboral ya es excesiva y en esas condiciones se corre el riesgo de quemarlo todavía más.

Podríamos añadir la frustración de no haber avanzado en la gestión común del ciclo 0-3 ni en la implementación de nuevos planes de tratamiento integrado de las lenguas, de protocolos de actuación en materia de prevención de salud laboral, el ninguneo sistemático a los sindicatos a la hora de ofrecer la información necesaria para el desarrollo de su actividad o en la participación en diversos ámbitos (aspectos que son preceptivos, pero que se incumplen sistemáticamente)

Por todo ello, la calificación que merece el gobierno en la gestión de la educación pública es el de un rotundo suspenso. Durante el próximo curso el gobierno tendrá la última oportunidad para recuperar. Esperamos que se pongan las pilas desde septiembre y que logren superar su cometido, implementar lo establecido en el acuerdo programático, antes de finalizar la legislatura.



www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu